

AÑANAKO GATZ HARANAREN BISITARIEN ZENTROA/
*CENTRO DE VISITANTES DEL VALLE SALADO DE AÑANA*
**www.vallesalado.eus**
☎ *945 351 111*

AÑANA ESKUALDEKO TURISMO BULEGOA/
*OFICINA DE TURISMO COMARCAL DE AÑANA*
**www.ananaturismo.com**
☎ *945 351 386*

112 SOS DEIAK

Arabako ibilbide berdeen sarea — Red de Itinerarios Verdes de Álava

araba álava
foru aldundia diputación foral

Arabako ibilbide berdeen sarea — Red de Itinerarios Verdes de Álava

araba álava
foru aldundia diputación foral



SL-A 35

**GESALTZA AÑANATIK CAICEDO YUSO ETA ARREOKO LAKURA ETA UÑA HAITZERA IBILBIDEA**
***SENDA DESDE SALINAS DE AÑANA AL LAGO DE CAICEDO YUSO Y ARREO Y A LA PEÑA LA UÑA***

SL-A 36

**CAICEDO YUSO ETA ARREOKO LAKUAREN IBILBIDE ZIRKULARRA**
***SENDA CIRCULAR AL LAGO DE CAICEDO YUSO Y ARREO***



## GATZ HARANA

**Añanako Gatz Harana Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak (FAO) Europako Munduko Nekazaritza Ondarearen lehen Sistema Garrantzitsua (Sipam) izendatu zuen.**

**Gesala gune horretan berez azaleratzen da, eta gesal horretatik lortzen dute gatza, eskuz eraikitako terrazak baliatuz. Gaur egun egitura horiek zaharberritzen ari dira, antzinako tradizioak errespetatuz.**

**Seinaleztatutako herri ibilbideek (SL-A 35 eta SL-A 36) Gatz Harana ezagutu, Caicedo-Yusoko lakua inguratu eta Uña Haitza igotzeko aukera ematen digute. Gatz Haraneko Ibilbide Berdeak gatzagen inguruan ibilaldi erraz bat egiteko aukera ematen du.**

## *EL VALLE SALADO*

*El Valle Salado de Añana fue reconocido por la Organización de las Naciones Unidas para la Alimentación y la Agricultura (FAO) como el primer Sistema Importante del Patrimonio Agrícola Mundial (Sipam) de Europa.*

*La salmuera mana en esta zona de forma natural y a partir de ella se obtiene la sal, a través de terrazas construidas de manera artesanal. Estas estructuras se están restaurando en la actualidad, respetando las antiguas tradiciones.*

*Los Senderos Locales señalizados (SL-A 35 y SL-A 36) nos permiten descubrir el Valle Salado, bordear el lago de Caicedo-Yuso y ascender a la Peña la Uña. La Ruta Verde del Valle Salado permite dar un sencillo paseo alrededor de las salinas.*



## BISITATZEKO ALTXORRA...

**CAICEDO YUSO ETA ARREOko lakua naturagune babestuen Natura 2000 Sarean dago bilduta, eta Euskadiko laku natural iraunkor bakarra da.**

**Lakua Europako sakonenetakoa da kokatuta dagoen garaieran, eta haren jatorriari buruzko elezahar ugari daude.**

**Elezahar horietako batek dio Ama Birjina ogi-eske joan zela bertan zegoen etxe batera, eta hiru aldiz uko egin ziotenez herria urez bete zuela, modu horretan lakua sortuz.**

## *UN TESORO PARA VISITAR...*

*El LAGO DE CAICEDO YUSO Y ARREO se encuentra incluido en la Red Natura 2000 de espacios naturales protegidos y es el único lago natural permanente de Euskadi.*

*Es uno de los lagos más profundos de Europa a la altura en que se encuentra y son muchas las leyendas que hacen referencia a su origen.*

*Una de ellas nos cuenta que la Virgen fue a pedir pan a una de las casas que había en el lugar y al ser negada tres veces, hizo que las aguas inundaran el pueblo, surgiendo así el lago.*










## GESALTZA AÑANATIK CAICEDO YUSO ETA ARREOKO LAKURA ETA UÑA HAITZERA IBILBIDEA
## *SENDA DESDE SALINAS DE AÑANA AL LAGO DE CAICEDO YUSO Y ARREO Y A LA PEÑA LA UÑA*

SL-A 35

**km 0** GESALTZA AÑANA. Ibilbidea Gesaltza Añanako aparkalekuan hasten da, eta gatz-larrainak inguratzen ditu haranaren hondorantz doan pista eroso baten bidez, GR 1 Bidezidor Historikoarekin batera.

**km 2** Ezkerreko bidezidor batetik desbideratzen gara eta GR 1 ibilbidea alde batean uzten dugu.

**km 2,8** Bideak Villambrosako errepideraino eramaten gaitu. Hau zeharkatu ondoren GR 1ekin egiten dugu bat berriro eta puntu honetan hasiko gara lakuari bira ematen. Errepidean bukatuko duen bidezidor batetik inguratuko dugu lakua, GR 1 atzean utziz.

**km 4** Errepidearen trazadurari jarraitzen diogu metro batzuk, baina basoan sartzen den bide batetik desbideratuko gara berehala. Ezkerralderantz biraketa bortitz bat eginez Uña Haitzerantz bideratuko gara, horixe baita gure ibilbidearen azken jomuga.

**km 6,2**

**km 0** *SALINAS DE AÑANA. El itinerario da comienzo en el aparcamiento de Salinas de Añana y rodea las eras de sal, junto al GR 1 Sendero Histórico, por una cómoda pista que se dirige hacia el fondo del valle.*

**km 2** *A mano izquierda nos desviamos por un sendero y abandonamos el GR 1.*

**km 2,8** *El sendero nos conduce hasta la carretera de Villambrosa, la atravesamos y empalmamos de nuevo con el GR 1 dando comienzo a la vuelta al lago. Rodeamos el lago por un sendero que va a parar a la carretera y nos despedimos del GR 1.*

**km 4** *Seguimos el trazado de la carretera unos metros, pero pronto nos desviamos por un camino que se adentra en el bosque. Mediante un brusco giro a la izquierda tomaremos rumbo hacia la Peña la Uña, último objetivo de nuestro recorrido.*

**km 6,2**

| | |
|---|---|
| 6,2 km | 1 |
| 1h 30' | 2 |
| 295 m | 2 |
| 82 m | 2 |




## CAICEDO YUSO ETA ARREOKO LAKUAREN IBILBIDE ZIRKULARRA
## *SENDA CIRCULAR AL LAGO DE CAICEDO YUSO Y ARREO*

SL-A 36

**km 0** LAKUKO AMA BIRJINA. Lakuko Andra Mariaren baselizatik abiatzen gara, eta errepidea gurutzatu ondoren pistari jarraitzen diogu ipar-mendebalderantz.

**km 0,9** Berehala bidegurutze batera iritsiko gara eta ezkerrekoa hartuko dugu, GR-1 Bidezidor Historikoaren trazadurari jarraituz. Pista batek berehala eramango gaitu lakura. Seinaleztatuta dagoen bidezidor bati jarraituz hezegune hori inguratzen dugu eta Caicedo Yuso eta Arreo elkartzen dituen errepideraino iritsiko gara.

**km 2,1** Hemendik, errepide-bazterretik joango gara kontu handiz, eta abiapuntura hurbilduko gara.

**km 3**

**km 0** *Nª Sª DEL LAGO. Partimos de la ermita de Nuestra Señora del Lago y tras cruzar la carretera seguimos por la pista en dirección Noroeste.*

**km 0,9** *Pronto llegamos a un cruce de caminos y tomamos la opción de la izquierda, siguiendo el trazado del GR 1 Sendero Histórico. Una pista nos acercará de inmediato al lago. Por un sendero señalizado rodeamos este humedal y llegamos hasta la carretera que une Caicedo de Yuso con Arreo.*

**km 2,1** *Desde este punto, avanzamos con precaución por el arcén de la carretera, hasta llegar al punto de partida.*

**km 3**

| | |
|---|---|
| 3 km | 1 |
| 40' | 1 |
| 70 m | 2 |
| 70 m | 1 |




